

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea Berantevillako industrialdeko ur horniduraren eta saneamenduaren tasa – 2024ko hirugarren eta laugarren hiruhilekoak

I. JENDAURREAN JARTZEA

Berantevillako industrialdea edateko urez hornitzeko eta saneamendurako tasari dagozkion 2024ko ekitaldiko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako kontribuzio erroldak egin dira, eta Alkatearen 11/2025 Dekretuaren bidez onetsi dira.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eraginpeko zergadunek aukera izan dezaten errolda aztertzeko eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzeak haien likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. apartatua eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzearen Udal Zerga Ordenantza Orokorrak 2.1 artikulua.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri ondorengo egunetik aurrera.

II. KOB RATZ EKO ALDIA

Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2025eko otsailaren 3tik apirilaren 3ra.

Borondatezko aldiko dirubilketa amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazte aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekareruak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banku-erakundeetan helbideratutako ordainketak egun hauetan egingo dira:

- 2024ko hirugarren hiruhilekoa: 2025eko otsailaren 12an.
- 2024ko laugarren hiruhilekoa: 2025eko martxoaren 12an.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, dirua Kutxabankeko bulegoan edo transferentzia bidez sar dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, bai eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak ere, Berantevillako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2025eko urtarrilaren 14a

Alkatea
ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL